



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 18a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/DEC-00045. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00327. Galdera, sinbologia frankista kentzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00417. Galdera, JPI Consultores SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00418. Galdera, txostenak bat ez etortzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00419. Galdera, ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarterako aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00420. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00421. Galdera, Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (11. or.).

- 11-24/PES-00422. Galdera, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00423. Galdera, PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00424. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00425. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00426. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00427. Galdera, jakiteko ea NASUVINSaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00428. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00429. Galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 55/2024 Ebazpena, urriaren 17koa, Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua aldi baterako ordeztuko duen teknikaria (18. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- 11-24/CDP-00003. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa. Lehendakaritza eta Berrdintasun Batzordeak onetsi du (19. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru-lege proposamen honen bidez erdietsi nahi den helburua da Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legea Nafarroan eguneratzea, "tentsiopeko merkatuaren zonalde" deklarazioari dagokionez, halatan ahalik denbora laburrenean garatzearen etxebizitza-politikako tresna hori, Nafarroan etxebizitza bat eskuratzeko dagoen zailtasun gero eta handiago dela-eta; batez ere, alokairuzko etxebizitzaz denaz bezainbatean.

Horrela lortu nahi da etxebizitzak erosteko nahiz alokatzeko eragiketei emandako babesaren hobetzea, prozesuari segurtasuna eta bermeak emateko beharrezkoak diren gutxieneko informazio batzuk xedatuz, informazio eguneratuaren eta datu ofizialen bitartez bai errentatzaile eta errentariak babestuz, bai eta merkatu horretan esku hartzen duten eragileen multzoa.

Horren guztiaren bitartez oreka bat sostengatu nahi da, tentsiopeko etxebizitza-merkatukotzat definituriko zonetako etxebizitza-eskaintzaren eta ohiko egoitza ezinbestean zona horretan edukitzea premiarren artean, egoera hori botere publikoetatik alderantzizatzeko beharrezkoak diren tresnak, plangintza eta neurriak sustatuz.

Horretarako proposatzen da maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, jarraian adierazten den moduan:

Artikulu bakarra. Aldaketa egitea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 97. artikuluan, halako moldez non honela idatzita geratuko baita:

97. artikulua. Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde deklaratzeko.

1. Nafarroako Gobernuan etxebizitza-alarreko eskumenak dituen departamentuak zilegi izanen du eremu jakin batzuk "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeko, egoki diren urrats publikoak bideratze aldera, herritarrei etxebizitzarako duten eskubidearen egikaritze efektiboa erraztuko dietenak, abiapuntuztat harturik prezio ordainerrazeko etxebizitzaren eskuragaritasunerako arriskua, eta kontuan izanik suertatzen diren lurralde-premia desberdinak.

2. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Deklarazioaren aurretik, prestatze-prozedura bat beharko da, bideratuta egonen dena deklarazio horren xede den eremuko etxebizitza-merkatuaren egoerari buruzko informazioa lortzera, zenbait adierazle barne harturik, hala nola mota desberdinetako etxebizitzaren alokairu- eta salmenta-prezioenak eta horiek denboran zehar izandako bilakaerarenak, etxebizitzaren bizi diren familien errenta erabilgarriaren mailarenak eta horrek denboran zehar izandako bilakaerarenak, halatan eta etxebizitza-prezioekin batera neurtu ahal izatearren familiek etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko egin beharra daukaten ahalegin ekonomikoaren bilakaera.

b) Gero, informazio-izapide bat egingen da, zeinaren bidez jendaurrean paratuko baita deklarazioa oinarritzeko asmoz erabili nahi den informazio guztia, barne direla populazioaren eta familien espazio-banaketari, egiturari eta dinamikari buruzko azterlanak, bai eta eskaintzaren eta etxebizitza-prezio eta -moten araberrako zonifikazioa ere, edo beste edozein azterlan, modua emanen duena gizarte- eta lurralde-koherenari kalte egiten dioten desorekak eta bereizketa sozioespazialeko prozesuak agerian jarri edo prebenitzeko. Informazio publikoaren izapidea gauzatu da Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian bi hilabetez jendaurreratuz, epe horretan herritarrek zilegi izanik alegazioak aurkeztea, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean kasuko iragarkia argitaratuz.

c) Lurralde-eremu baten "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioa etxebizitza-alarrean eskudun den Nafarroako Gobernu departamentuaren titularraren foru agindu bitartez egingen da, zeina arrazoituta egon beharko baita aipagai harturik eremu horretako etxebizitza-merkatuak bere edozein modalitatetan ohiko etxebizitzarako eskaria asetzeko dituen akats edo eskastasunak, zentzuzko prezioan asetzekoak

alegia, bertako egoiliar den biztanleriaren egoera sozioekonomikoaren eta dinamika demografikoaren arabera, eremu bakoitzaren lurralde-berezitasunak aintzat hartuta. Indarrean sartzeko, beharrezkoa izanen du "Nafarroako Aldizkari Ofizial"ean argitaratua izatea. Jakinarazi egingen zaio etxebizitza-alarrean eskudun den ministerioari.

3. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeko, justifikazio-oroitidazki bat beharko da, datu objektiboak erabiliko dituen, familia berrien sorkuntzaren dinamika kontuan harturik azalduko duena arrisku berezia dagoela egoiliar diren biztanleentzat eskuratzeko modukoak diren etxebizitzaren hornidura nahikorik ez egotekoa, honako inguruabar hauetako bat gertatzeagatik:

a) Lurralde-eremu horretan hipotekaren edo alokairuaren kostuak pertsonaren edo bizikidetzaren aurrekontuan duen batez beteko zama, oinarritzeko hornidurak eta gastuak gehituta, handiagoa izatea familien batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar baino.

b) Lurralde-eremu horretan etxebizitzaren erosketa- edo alokairu-prezioak aurreko bost urteetan izandako hazkunde metatuko ehuneko gutxienez ere hiru portzentaje-puntu gehiagokoa izatea Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumoko Prezioen Indizearen hazkunde metatuaren ehuneko baino.

4. Etxebizitzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, "Tentsiopeko Etxebizitza-merkatuaren Zonalde" deklarazioarekin batera edo horren ondoren, berariazko plan bat onetsiko du, deklarazioan agerian geraturiko desorekak zuzentzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak proposatuko dituen, bai eta betetze-egutegi bat ere. Departamentuak zilegi izanen du kasuko eremuan dauden udalekin elkarlan-formulak adostea, berrmatu dutenak udal horiek parte-hartzea izan dezaten apartatu honek aipatzen duen berariazko planaren proposamenaren prestaketan, bai eta horren garapen eta finantzaketan ere.

Neurri horiek etxebizitza-alarreko eskumenak dituen ministerioarekin koordinatu ahalko dira, Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak ezartzen dituen nondik norakoaren arabera.

5. Lurralde-eremu batentzat "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioa onesten duen foru-aginduak ezarriko du ezen lurralde-eremu batek "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" gisa duen deklarazioaren indarraldia hiru urtekoa izanen dela.

Arauk ezartzen duen indarraldia iraganik, eta hasierako deklarazioa oinarritu zuten inguruabarrak gertatzen badira, zilegi izanen da aipatu indarraldia urtebeteko epeka luzatzea.

6. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" gisa deklaraturik ez dauden udalek zilegi izanen dute etxebizitza alorrean eskudun den departamentuari eskatzea, behar bezala justifikatuz eta arrazoituz, hasiera eman dakion artikuluhonen bigarren apartatuak jasotako aurretiazko informaziorako prestatze-prozesuari, egiaztatze

aldera ea betetzen ote diren "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde"tzat hartua izateari begira arau honek ezartzen dituen betekizunak. Eskaera hori ezin izanen da berriz egin hiru urte baino gutxiagoko denbora-epean.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako efektuekin.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren tresnak ezar ditzan Nafarroaren ondarearen gaineko kultur astearen proiektua ezartzeko aukera eman dakien hori egin nahi duten ikastetxeei.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuak bere buruari ezarri dion helburuetako bat da kultur ondare material nahiz ez-materiala babesteko eta zaintzeko berariazko ekintzak sustatzea, erkidegoekin eta eragileekin lankidetzan eta haiekin ados jarrita, bai eta departamentuen artean lan eginez ere.

Orain dela gutxi jakin ahal izan dugu zer ildo estrategiko jarraituko duen Nafarroako Kulturaren II. Plan Estrategikoak (2024-2028), non, gainera, proposatzen baita kulturaren arloko sentsibilizazio-eta/edo prestakuntza-kanpainari bultzada ematea, plataformak edo beste bide batzuk erabiliz.

Bestetik, behin baino gehiagotan eztabaidatu izan dugu kultura zer garrantzitsua den lurraldea kohesionatzeko, eta zer garrantzitsua den kultura herritar guztien esku jartzea.

Gauza jakina da gazteen artean kultur ondare-arekiko atxikimendurik eza gero eta handiagoa dela. Hortaz, gure erkidegoaren barruan gero eta handiagoa da gure arbasoek utzi ziguten ondare-rik baliotsuena zaintzearen garrantzia.

Geroa Bain ikusten dugu aukera dagoela, baita beharra ere, kultur ondarea gure erkidegoko gazte eta nerabeei hurbilduko dien tresna bat bultzatzeko, gure historiaren gaineko ezagutza handitzearen, bai eta lurralde osoan zehar dauden ondare-lan muntadunen gaineko ezagutza inplizitua ere.

Horrek berekin dakar, halaber, ezagutza geografiko inplizitu bat, gure ustez positiboa dena eskola-curriculumaren barruan.

Eta badu azken abantaila bat ere, landa-eremuei bizi gehigarri bat eta dinamizazioa ematen dieten ekintzak erakartzen ditu-eta.

Hori dela-eta, Geroa Bain apustu egiten dugu kultur aste bat ezarri ahal izan dezaten nahi hori duten ikastetxeek. Aste horrek ipar eskiko eskola-kanpainaren edo belako eskola-kanpainaren efektu berberak izanen ditu, eta nafar ikasleei aukera emanen die gure ondarea bertatik bertara ezagutzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erraztasun guztiak eman eta beharrezkoak diren bide guztiak ezar ditzan, ikas-tetxeek hala nahi badute aukera izan dezaten bertan Nafarroako ondarearen gaineko kultur astearen proiektua abiarazteko.

Iruñean, 2024ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/DEC-00045. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du urriaren 19an izanen den Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eta ekitaldi bat egingen du urriaren 18an, ostirala, 12:00etan, SARAY Elkartearekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak aldeztu egiten du Saray elkarteak abian jarritako elkartasun kanpai-

na, eta bertan parte hartzera dei egiten die Nafarroako herritarrei.

3. Nafarroako Parlamentuak nabarmendu egiten du minbiziaren aurkako ikerketan inbertitzearen garrantzia eta premia.

4. Nafarroako Parlamentuak bere egoitzaren fatxada kolore arrosaz argiztatuko du urriaren 19ko ilunabarrean, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00327. Galdera, sinbologia frankista kentzeari buruzkoa*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, sinbologia frankista kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak:

Legegintzaldi honetan Parlamentuan egindako lehenbiziko agerraldian, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departa-

mentuaren lan-ildoak aurkeztu eta azaldu zituen bigarren lehendakariorde eta kontseilari Ana Olokok. Besteak beste, hau adierazi zuen hitzez hitz:

"Memoriaren arloan, memoria demokratikoari buruzko estatuko nahiz Nafarroako legeak gartzan jarraituko dugu, hilobi-mapa gaurkotzeko eta ezagutarazteko lanean, bai eta oraindik ere desagertuta dauden ehunka pertsona desobiratu eta identifikatzekoan ere.

Nafarroako sinbologia frankistaren errolda gaurkotzen ari gara, sinbologia hori Nafarroako espazio publikotik desagerrarazten jarraitu ahal izateko, bai eta erregimen haren ordezkari muntadunei emandako kondekorazioak erretiratzan ere".

Adierazpen horiek egin zituenetik urtebete baino gehiago joan baita, jakin nahi dugu zer aurrerapauso zehatz eman den gai horietan, eta, hartara, honako hau galdetzen diogu kontseilariari:

Zer urrats edo aurrerabide egin da Nafarroako Foru Komunitateko espazio publikotik sinbologia frankista kentzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/PES-00417. Galdera, JPI Consultores SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herriarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, JPI CONSULTORES SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herriarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Klima Aldaketaren Nafarroako Batzarreko adituen lehenbiziko bileraren gai-zerrendan JPI Consultores SL agertzen da bilera horretako parte-hartzaile gisa. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

– Zer eginkizun izanen du enpresa aholku-emaile horrek?

– Nola esleitu da horren kontratazioa?

– Zein da kontratazio horren zenbatekoa?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00418. Galdera, txostenak bat ez etortzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, txostenak bat ez etortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko osasun-laguntzak herritarrentzat duen irisgarritasunari buruz (2018-2023) Nafarroako Kontuen Ganberak egindako txostenean ematen diren datuak eta Osasun Departamentuak "Agintetala"n emandako datu ofizialak ez datoz bat herritarren erreklamazioei dagokienez. Zergatik?

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00419. Galdera, ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarterako aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuak zer aurrekontu-aurreikuspen darabil 2025erako ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearentzat?

2. Zer helburu ezartzen du 2025erako?

3. Gobernuak ba al du aurrekontu- eta helburu-zenbatespenik heldu diren urteei begira?

Iruñean, 2024ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00420. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

– Bidean enpresa publikoak noiz edukiko du gardentasun-atal bat Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunean?

– Nafarbide enpresa publikoak noiz edukiko du gardentasun-atal bat Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunean?

Iruñean, 2024ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00421. Galdera, Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Tenerías Omega enpresak jasotako laguntza publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Azken hamar urteetan zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu Villatuertan kokaturiko Tenerías Omega enpresak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b aldezteagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria edo bestelako kenkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu Villatuertako Tenerías Omega enpresak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren bere aitopenetan?

Iruñean, 2024ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-24/PES-00422. Galdera, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek likidazio-oinarri negatibo gisa aplikatzeke dauzkaten zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezartzen da likidazio-oinarri negatiboak zerekin eta hurrengo lehen hamabost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsatzea.

Hori dela eta, honako hau galdetzen dugu:

1. Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek zer zenbateko dute konpentsatzeke likidazio-oinarri negatibo gisa?

2. Nola zehazten da zenbateko global hori urtebeteko ekitaldika?

3. Zenbateko globala nola dago banatuta enpresa handien, enpresa txiki eta ertainen, kooperatiben eta mikroenpresen artean?

4. Azken 15 urteotan, Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboek zer zenbateko (ekitaldika zehaztuta) konpentsatu dituzte likidazio-oinarri negatibo gisa?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00423. Galdera, PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, PFEZeko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezki-oinarri bereziaren batez bestekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian karga-eskala bikoitza jasotzen da, bata likidazio-oinarri orokorrerako eta bestea aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziko.

Hori dela eta, honako hau galdetzen dugu:

1. Azken 10 urteotan zein izan da (ekitaldiz ekitaldi adierazita) likidazio-oinarri orokorreko errentei aplikatu zaien batez besteko tasa?

2. Azken 10 urteotan zein izan da (ekitaldiz ekitaldi adierazita) aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziko errentei aplikatu zaien batez besteko tasa?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00424. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunetik zergatik ezin da iritsi SODENAREN gardentasun-atalera?

– Noiz konponduko da hori?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00425. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 2024ko aurrekontuko partiden betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako aurrekontu orokorretan gastu gisa ageri da honako partida hauetan aurreikusitakoa:

– 710004 71300 4700 412211 "Itxitura birtualeko idunekoa erosteko laguntza", 205.000 euro.

– 710004 71300 7609 412200 "Toki entitateentzako laguntzak, animalien babeserako ekin-tzengatik", 175.000 euro.

– 710004 71300 7609 412202 "Entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkartentzako laguntzak", 100.000 euro.

– 720003 72200 2279 413109 "Zirkuitu laburretako ekintzetako eta sustapeneko gastuak", 35.000 euro.

– 720003 72200 2279 413105, "Mandatua INTIA erakundeari. Balio-katearen berrikuntza, zuzeneneko salmenta, zirkuitu laburrak eta PLEA", 300.826 euro.

– 720003 72200 4400 413100 "INTIArekiko hitzarmena, kalitatezko nekazaritzako elikagaien produkzioak eta tokiko produktuak sustatzeko", 1.750.000 euro.

– 720003 72200 4609 413100 "Toki entitateentzako laguntzak, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko", 40.000 euro.

– 720003 72200 4700 414200 "Nekazaritzaren trantsizio ekologikorako laguntzak", 100.000 euro.

– 720003 72200 4819 413104 "Zirkuitu laburretako ekoizleen elkartentzako laguntzak", 300.000 euro.

– 720006 72300 4819 412100 "Elkartentzako laguntzak, landa eremuaren jasangarritasunerako proiektuetarako", 150.000 euro.

– 740004 74400 2276 456205 "Klima-aldaketaren aurkako herritarren batzarrarentzako eta gizarte-kontseiluarentzako euskarri teknikoa", 35.000 euro.

– 740002 74200 6019 456704 "Oihan-inbertsioak, larreak hobetzeko", 200.000 euro.

– 740001 74100 7609 456200 "MRR Toki entitateentzako dirulaguntza, entitate publikoetako hondakinei buruzko araudia ezartzeko laguntza-planerako".

Hori dela eta, honako hau galdetzen dugu:

1. Partida horietako bakoitzean gutxi gorabehera zein izanen da, urte amaieran, betetze-maila eurotan?

2. Partida guztiak dira 4. kapitulukoak; beraz, transferentzia arruntak dira. Zer entitate publiko edo pribatu izan daitezke transferentzia horien hartzaile? Zer diru-kopuru jasoko luke horietako bakoitzak?

3. Zer prozedura baliatu da (hitzarmena, deialdi publikoa, zuzeneko esleipena...) partida horietako bakoitza betetzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00426. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatutako eskabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Orain arte aintzat hartu ahal izan al dira, aurreikusitako aurrekontuarekin, jaso diren eskabide guztiak?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00427. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, jakiteko ea Nasuvinsaren alokairuko etxebizitza-poltsa programako neurriak egokitzeari buruzko mozioa bete den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko ekainaren 13an, nik aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zen, zeinaren bidez premiatzen baitzen Alokairu Poltsaren programan diseinatutako neurriak despopulazte-arriskuan dauden udalerrien ezaugarri eta premia partikularretara egokitzera, Nafarroako lurralde osoan finkatutako helburuetarako baliagarria izan dadin.

Mozioa puntuz puntu bozkatu zen, eta bat izan ezik, erabaki-proposamen guztiak onetsi ziren.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Zer aukera aztertu da edo zer egin da orain arte, mozio hori betetzeko?

– Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak, eta mozio hori nola betetzeko asmoa du?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00428. Galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen

Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Aurreikusitako aurrekontuarekin ezin izan badi-ra eskabide guztiak aintzat hartu, zenbat eskabide geratuko dira aintzat hartu gabe, eta zein izanen da zenbatekoa?

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00429. Galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, jakiteko zer egingen den "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontuko partidarekin artatu gabeko eskabideen kasuan buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

996E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Horren arabera, baimendu egin da 1.000.000 euroko gastua egitea 2024ko gastu-aurrekontuko 950001 96100 4809 241109 "Autoenplegua sustatzeko laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura.

Aurreikusitako aurrekontuarekin ezin izan badira eskabide guztiak aintzat hartu, zer jarduketa egin nahi du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, eskabide guztiak aintzat hartzeko? Zehaztu epeak.

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

55/2024 Ebazpena, urriaren 17koa, Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua aldi baterako ordeztuko duen teknikaria

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua eritasunaren ondoriozko baja egoeran dagoenez eta Nafarroako Parlamentuaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera,

EBATZI DUT:

1. Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari Beatriz Ilundáin Ilundáin andrea izendatzea Kontu-hartzailetza eta Gai

Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua aldi baterako ordeztuko, 2024ko urriaren 2etik aitzina eta hura aldi baterako ezintasuna dela-eta bajaran dagoen bitartean.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ebazpen hau interesdunei eta Zerbitzu Orokorretako buruari jakinaraztea.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

11-24/CDP-00003. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboa

LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak, 2024ko urriaren 9an egindako bilkuran, igorritako Planarekin ados zegoela adierazi zuen, eta honako erabaki hauek onetsi zituen Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2024ko Plan Operatiboari dagokionez, proposamen hauek gehituta:

Lehenbizikoa. Sarreraren hirugarren gidoia aldatu da. Hona testua:

“- eta irisgarritasun unibertsala espazio fisikoaren irisgarritasunetik haratago doala, ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuen irisgarritasunaz ari gara, baita objektu, baliabide, tresna eta gailuenaz ere”.

Bigarrena. Paragrafo bat gehitu da sarreraren amaieran. Hona testua:

“Hala ere, plangintza operatiboaren lau urte hauetako esperientziak agerian utzi du ezinbestekoa dela Foru Komunitateko Administrazioak eskaintzen dituen ingurune, prozesu, zerbitzu, ondasun, produktu, tresna, baliabide eta gailuen egoeraren diagnostikoa izatea, bai eta epe ertainerako plangintza estrategikoa ere, zeinak, diagnostikotik abiatuta, aurreikusitako xedeak eta aldaketak ezarriko baititu, bai eta horiek lortzeko neurriak ere, kronograma eta aurrekontu zehatz batekin eta denbora-tarte errealista batean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

